

2017KO ABENDUAREN 5EAN EGINDAKO APARTEKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2017ko abenduaren 5ean 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV).
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

PUNTU BAKARRA.- 2017KO UDAL AURREKONTU OROKORRA HASIKERA BATEAN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Lehenengo eta behin, Amets Jauregizar andreak aurrekontuaren espedientearen barri emon dau:

a) Gastuen orriaren aurrekontua guztira 4.239.262,54 eurokoa da.
Diru sarreren orriaren aurrekontua guztira 4.239.262,54 eurokoa da

b) 2018ko urtean hiru erispide orokor honeek azpimarratu behar dira:

- Doikuntza plangintzatik urtetea %48ko zorragaz eta estrategien diseinua egitea iraunkortasun ekonomikoa lortzeko.
- Herriko Antolamenduaren Plangintza Orokorrearen hasikerako onarpena eta herriaren eredu barriaren tramitazioa, "Bakio presa barik" eta "Bakio barrurantz" alternatibaren erispideetan oinarrituz.
- Zerbitzu publikoen eta inbertsioen udal gestinoaren normaltasuna berreskuratzea.

c) Jarraian, aurrekontuak lantzeko bidean egin diran egintzen eta tramiten barri emon dau, emondako urratsak laburbilduz; hona hemen:

Diagnostiko fasea: 500 enquesta egin dira.

Lantzeko fasea: fase honen helburua herritarrakaz hartu-emonak sustatzea eta aurrekontuen behin betiko zirriborroa idaztea hauxe izan zan. Horren barruan herriko mahaia eta mahai teknikoa eratu ziran.

Txakolingunean, abenduaren 10ean, herritarrei 2018ko udal aurrekontuaren barri emon jaken.

d) Ostean, 2018ko aurrekontuaren atal azpimarragarrienak azaldu dauz:

Gizarte zerbitzuak

Hezkuntza

Kirola

Kultura eta Ongizatea

Azpiegiturak eta zerbitzuak, kale garbitasuna eta sastarren batuketa.

Komunikazioa hobetu: herritarrekaz hartu-emon zuzenagoak izateko.

Herritarren parte-hartzea hobetzeko bitartekoak ipini.

Inbertsinoak: Zubiaurreko saneamendua, Ibarretorren autokarabanen aparkalekua egin, turismo bulego zaharraren teilatua konpondu, Herriko Antolamenduaren Plangintza Orokorra idatzi, zaborrontziak erosi, Sabino Arana kaleko lurrazpiko aparkalekua konpondu eta Eskolaren aterpea.

Zerbitzu publikoak hobetzeko beharginak kontratau.

Azkenik, izapidetutako espedienteak kontuan hartuz eta gaia informazio batzordean landu dan ezker be, EH Bildu taldea osotzen daben lau zinegotzien (Amets Jauregizar, Isabel Barturen, Aitor Ibarzabal eta Egoitz Abio) eta BakioBai taldea osotzen daben bi zinegotzien (Alain Gómez eta Josu Garai) aldeko botoagaz, korporazioa legez osotzen daben gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- 2018ko udal aurrekontu orokorra lehenengoz onartzea, betearazpen arauak, besteak beste, barruan dirala. Izan be, gastu eta sarrera kapituluka laburtutako zenbatekoak ondorengoak dira:

RESUMEN POR CAPITULO / LABURPENA KAPITULUKA							
INGRESOS / SARRERAK							
Capítulo kapitulua	Denominación Izendapena	Liq. 2016	P.E. 2017	aurrekontua 2017	P.E. 2018	aurrekontua 2018	VAR 17-18
1	Impuesto directos / Zerga zuzenak	838.940,49	858.688,82	876.564,83	875.862,59	1.139.140,99	29,96%
2	Impuestos indirectos / Zeharkako zergak	76.064,06	90.728,06	75.000,00	62.355,23	75.000,00	0,00%
3	Tasas y otros ingresos / Tasak eta bestelako sarrerak	796.801,96	813.971,61	787.547,16	830.251,05	750.314,27	-4,73%
4	Transferencias corrientes / Transferentzia arruntak	2.241.114,29	1.803.110,46	1.676.741,48	1.839.492,21	1.854.689,27	10,61%
5	Ingresos patrimoniales / Ondare sarrerak	545.383,07	335.000,00	326.511,94	335.000,00	416.511,94	27,56%
	INGRESOS CORRIENTES	4.498.303,87	3.901.498,95	3.742.365,41	3.942.961,08	4.235.656,47	13,18%
6	Enajenación de inversiones / Inbertsioen besterengatzea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00%
7	Transferencias de capital / Kapitua transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00%
	INGRESOS DE CAPITAL	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00%
8	Activos financieros / Aktibo finantzarioak	1.711,15	0,00	3.606,07	0,00	3.606,07	0,00%
9	Pasivos financieros / Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00%
	INGRESOS FINANCIEROS	1.711,15	0,00	3.606,07	0,00	3.606,07	0,00%
	TOTAL / GUZTIRA	4.500.015,02	3.901.498,95	3.745.971,48	3.942.961,08	4.239.262,54	13,17%
GASTOS / GASTUAK							
Capítulo kapitulua	Denominación Izendapena	Liq. 2016	P.E. 2017	aurrekontua 2017	P.E. 2018	aurrekontua 2018	VAR 17-18
1	Gastos de personal / Pertsonal gastuak	1.124.173,14	1.278.206,58	1.180.000,00	1.303.770,71	1.180.000,00	0,00%
2	Gastos corrientes y de serv / Gastuak ond. Arrunt eta zerb.	1.145.972,64	1.475.859,37	1.456.915,87	1.520.135,15	1.713.593,10	17,62%
3	Gastos financieros / Gastu finantzarioak	82.399,15	218.664,66	56.548,19	189.708,85	28.203,75	-50,12%
4	Transferencias corrientes / Transferentzia arruntak	115.525,16	145.883,29	143.547,70	150.259,79	143.547,70	0,00%
5	Credito global y otros imprevistos/ Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	39.500,00	0,00	81.335,67	105,91%
	GASTOS CORRIENTES	2.468.070,09	3.118.613,90	2.876.511,76	3.163.874,50	3.146.680,22	9,39%
6	Inversiones reales / Inbertsio errealak	224.738,76	126.355,00	279.500,00	108.783,81	553.005,09	97,86%
7	Transferencias de capital / Kapitua transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00%
	GASTOS DE CAPITAL	224.738,76	126.355,00	279.500,00	108.783,81	553.005,09	97,86%
8	Activos financieros / Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	3.606,07	0,00	3.606,07	0,00%
9	Pasivos financieros / Pasibo finantzarioak	1.261.255,25	624.635,18	539.577,23	472.041,79	539.577,23	0,00%
	GASTOS FINANCIEROS	1.261.255,25	624.635,18	539.577,23	472.041,79	539.577,23	0,00%
	TOTAL / GUZTIRA	3.954.064,10	3.869.604,08	3.695.588,99	3.744.700,10	4.239.262,54	14,71%

2.- Onartutako aurrekontuaren espedientea jendaurrean azaltzea hamabost asteguneko epean, aldeztu aurretik "Bizkaiko Aldizkari Ofizial"ean, udaleko iragarki taulan eta udalerriko ohiko tokietan iragarkia eta beharrezko dokumentazioa herritarren eskura iminiz.

3.- Jendaurreko epean agiri horreen kontrako erreklamaziorik egon ezean, erabagi hau behin betikotzat hartzea.

Bertaratutako EAJ-PNV taldeko bost zinegotziak (Aitor Apraiz, Iker Muruaga, José Antonio Abio, José Luis Urrutia eta Gorka Azaola) abstenidu egin dira. Aitor Apraiz, taldeko bozeroaleak dino botoa ez emoteko arrazoi nagusia hau da: aurrekontua zentzuz egindakoa eta orekatua izan arren eta beharrezkoa, aurrekontua osatzeko orduan EAJ-PNV taldearen parte-hartzea kontuan izan ez izana.

Josu Garai zinegotziak, Bakiobai taldearen izenean, dino ondoko arrazoi honek dirala eta euren aurrekontuari baiezko botoa emon deusela: gure ustez garrantzitsuak diran puntu batzuei buruz gauzatzeko konpromisoak hartu dira, zuhurtzia egindako aurrekontuak dira eta aurrekontu onak dira.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoenez, alkate andreak batzar hau 19:35ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria